

www.noaia.com


N

u

!



Erregional mailako futbol taldea, igoera fasean



**Zubietako Eskola Txikia,
matrikulazio berrien premian**

r tz z n
l r t k
l n rr zt n...

Ik rt sun k rt n r n m k n r r

M l z r k
s r z r k
H s k m z t k k
H r r l u k
t r t u r r k
S l r k
s r r k...

Ik rt sun
N k z l k r t k r t
U n l n u s t r l 12
T h . / F x 33 111
2 17 USU l l G u k
l k t s a n u s u r l e m

herrikoa, atsegina,
hunkigarria, ezinbestekoa

Uurbilgo Baserriak
eta Baserritarrak

Josu Telleria: Asteleina

ESKURA EZAZU!

Lizardi liburuarena
Luzerok liburuarena
Kioakok
Txaperategi herrikoa
(Aginaga)
Hize denda
Maha nagala elkarreko

Elkartasuna nekazaritza koop.
Zumeta jatetxea
Alamandegi jatetxea
Santusneko Bawala denda
Noaua Kultur Elkartea

PREZIOA: 33 EURO (BAZKIDEEK NOAUA KULTUR ELKARTEAN 25 EURO TAN)

Noaua!!
www.noaua.com

**ABERASTU ZAITEZ!
EGIN ZAITEZ BAZKIDE**

Bazkidezia eskaria

Izen-deiturak: _____ Jaiotza data: _____
 Herria: _____ Adina: _____ Sexua: _____
 N.º telefono: _____
 Helbidea: _____
 Posta-kodua: _____ Herria: _____
 tel: _____ 2. tel: _____
 e-mail: _____

Bazkide izateko:

30€ Urtetean herri-karrozetik kaleratuko da

Ordutegiaren modua (baita urteko baina)

Donazioa: _____
 Karta-konturako portua (2016/azar/15etik)

*Informazio gehiago:
943 360 381

Zatoz!

Txirrikitutik !

Azken aste hauetan hotza eta elurra izan dira protagonista nagusiak Euskal Herri osoan. Duela 30 urte inguru ere elurak bisita egin zigun. Argazkian ikusten duzuen moduan herri osoa zuriz estali zen. Gaur egun argazkia leku beretik aterako bagenu ez genuke hementxe ikusten dugun paisai zoragarri hau ikusiko, izan ere etxe berriak direla eta, zelai eta baratz gutxiago baitaude zuritasun horretaz gozatzeko. Hala ere, oraindik San Estebango gaina eta Andatza mendia geratzen zaizkigu. Zuriz estalitako paisaiak ez ditugu askotan ikusten eta seguru egun hauetan usurbildar askok elurraz gozatzeko tartea ederki aprobe txatu dugula.



Egilea: Luis Arnaiz., 1975, Elizaldea

Jabea: Luis Arnaiz

Zalao Arnaiz Iburguren

N u !

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbiet, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NOAUA! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Zubietako Eskola Txikia, igande goiz batean.

Aurkibidea

ZUTABEAN, IDOIA TORREGARAI _____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. ORR.

USURBIL, UDALSAREA 21 TALDEAN _____ 10. ORR.

UGARTE, JOSANTON ARTZEREN BEGIETAN _____ 12. ORR.

Datozen bi aletan, JosAnton Artzek Ugarte baserriari buruz ekarri dizkigun hausnarketak argitaratuko ditugu.



ZUBIETAKO ESKOLA TXIKIA _____ 14. ORR.

“OESTE”, INAUTERIETAKO GAI NAGUSIA _____ 15. ORR.

ZABORRA GUTXITZEKO KANPAINA _____ 16. ORR.

AGENDAKO EKITALDI AIPAGARRIENAK _____ 22. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !



IDÓIA TORREGARAI

Erok(om)eriaik

Asko gustatzen zait animaliekin hitz egitea; batez ere nirekin bizi direnekin (konfidantza kontua da, bistan da). Gehienetan pentsatzen dut pertsona askok baino gehiago ulertzen nautela, eta hitz egiterik izango balute, oso zentzuzkoak diren gauzak esango zizkidatelakoan nago. Bi hankakoek esango genituenak baino zentzuzkoagoak. Izan ere, eroen santua den Santa Ageda inguru hauetan, gure mundu hau eta gu geroni inoiz baino txoratuagoa gabiltzala iruditzen zait.

Ez naiz sartuko orain osaba Sam-en buruzagitza berri-
ro ere gehiago bategatik esku berdinetan zergatik geratu den aztertzea, ez eta inoiz existitu ez diren arma batzuk aitzaki hartuta benetako armek eragin duten kaltea azaltzea. Egia esan, azalpen askoren beharrik ez dute hauek, hain bistakoak dira eta erokeri hauek.

Ez dut ere asko ulertzen denentzat hain preziatua den bizitza, hain kontraesanerako diren argudioetarako erabiltzea gaur egun eta hain balio desberdina izatea. Gehiago balio al du bizitza estatubatuar batek irakiarrak baino? Edo nola da posible azken hiru hamarkadetan milaka (edo miloika?) pertsona hiltzera kondenatu duen HIESaren aurrean kondoia gaixotasun latz hori gehiago ez hedatzeko bide eraginkorra dela ukatzeko? Edo zergatik da hain txarra maitatua izango den bizitza bat mundura ekartzea, ohi baino beranduago bada ere? Ez al dugu eskubiderik bizitza ekartzeko? Eta modu duinean hiltzeko? Ez al dira galdera hauek guztiak kontraesankorrak? Hau komeria!

Ixildu egin behar dudala uste dut, katuak erotzat hartu baino lehen.

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idóia Torregarai

Ika-mika !

Bakea ETA erakundearen indarkeria eza ote?

Badirudi baietz, are gehiago azkenengo hilabeteetan heriotzak eragin dituzten eragile bakarrak estatu frantsesa eta espainiarra diren heinean. Ara hor Sara Fernandez eta Leo Esteban estatu espainiar-
rarak aurrera daraman dispersio politikoa-
ren ondorio zuzena. Oihane Errazkin fran-
tziar estatuak daraman suntsipen espetxe politikaren ondorio lazgarria. Baina badi-
rudi batzuei garrantzitsuago zaiela ETAK
Madrilen bost kontenedore lehertu izana
eta Batasunak ez gaitzeszea, Karme-
le Solagurenen hilotza oraindik beroa dagoen
bitartean. Asaldatuta eta ia tximetatik tira-
ka agertzen dira politikari profesionalak
horrelako ekintzekin bake prozesua oztopa-
tu eta zapuzten dela eta. Baina zertaz ari
dira hitz egiten! Ze bake prozesu ta ze pro-
zesu ondoko! Hemen zoritxarrez gatazkak
bere gordinean dirau eta berau konpontze-
ko proposamen bakarra dago mahaï gaine-
an. Eta hau Belodromoko ekitaldian Ezker
Abertzaleak aurkeztua da! Baina politikari
profesionalak, batetik berau iraindu ta tras-
gibersatzen dira eta bestetik, su-eten
magikoa eta gaitzespenak eskatzen dituzte.
Non ziren ordea gaitzeppen politikan mur-
gilduta diharduten horiek arestian aipatu-
tako heriotzen momentuan. Agian ez dira
gatazkaren ondorio? Usurbilen bertan zazpi
preso politiko gara ilegalki dispersatuak

eta dozenaka senide eta lagun milaka kilo-
metro egitera zigortuak gurekin 40 minutu
eskaxeko elkarrizketalditxo bat egin ahal
izateko.

Norbaitek esango du, ahaztu zaidala
Ventanas San Migueli jarritako leherkaria!
Ez, ez zait ahaztu, ahaztu ez zaizkidan beza-
la eskolta ematera beharturik dauden
Usurbilgo hiru zinegotziak. Leherkariaren
aurkako mozioa tita batean prestatu dute
udal korporazioan. Baina non ziren gaur
egungo alkatea eta zenbait zinegotzi
Oihana Lizaso eta ni neu basatiki torturatu
gintuztenean. Are gehiago gaur egungo
korporazio osoa Usurbilgo bizilagun dugun
Karlos Martin sekulako montaiia judizial
eta mediatikoaren ondorioz atxilatu eta
espetxeratu zutenean. Memoria freskatze-
ko; ustezko zerrenda famatu batean bere
izena agertzen zela eta. Esan dezakete onar-
tu zituela akusazioak (ez dakit onartu
zituen edo ez). Baina horrela balitz ere
neronek ere onartu nituen majina bat
gauza, zer erremedio.

Baina horrela ez goaz inora, sufrimentua-
ren pilota handituz eta norena den handia-
goa eztabaidatuz. Badugu garaia gatazka
behin betiko konpontzeko. Eragile guztien
arteko elkarrizketaz lortuko dugu helbu-
rria, bakea alegia.

Izenburuko galderaren erantzuna, zori-

txarrez, ez da. Konponbidea erraierara jota
bilatuko dugu eta ez etxea teilatutik eraiki-
tzen hasita edo eta eztabaida antzuetan gal-
duta. Ezker abertzaleak atea berriki ireki
du, gatazka konponbidean jarri asmoz.
Baino gainerako eragileek beraiek betetzen
ez dituzten aurre baldintzak exigitzen diz-
kiote.

Ez nuke gutuntxo hau amaitu nahi azke-
nengo NOAUA!n Luis Mari Ormaetxeak
idatzirik gutunari aipamentxo bat egin
gabe. Pentsatu nahi nikek ez haizela gaitzoz
edo eta fede txarrez ari, baina zoritxarrez ez
duk horrela. Baduk honezkero urte mor-
doxka bat politika munduan murgilduta.
Beraz badakik zein den eragile bakoitzaren
papera xake tableroan. Galdera pozointzua
eta intentzio oso maltzurkekoa plazaratu
huen, -zer leku ote du gaurkoak proposa-
men honen barruan?- Ederki asko dakik
hik ere San Miguel enpresari jarritako
leherkaria ez dela bake proposamenean
kabitzen. Baizik eta sufrimendu guzti hau
behin betikoz gainditzeko egina dela pro-
posamen hori. Baina hik nahiago duk are-
stian aipaturiko politiko profesionalen
paperean sartu eta kaka mareatzen ibili
benetako konponbidea bilatu ordez. Hik
jakingo duk zein intentzio izkutatzen ditu-
zuen jarrera horien atzean.

Jokin Errasti

Ika-mika!

Pedro Antonio Sanchez ezezagun bati

Pedro Antonio Sanchezek eskutitz bat argitaratu du NOAUA!ren aurreko alean. Bertan, Luixmari Ormaetxearen eta Joxe Antonio Altunaren arteko gutun-trukeari buruzko iritzia eta balorazioa bota du: lotsagarria irizten dio J. A. Altunaren jokabideari.

Beharbada, pake-pakean uzteko eskatu duenez, ez genuke Joxe Antonioren buruzko aipamenetan aurrera egin beharko, baina P. A. Sanchez delako horrek esandakoak buru-bihotzak astindu dizkigu eta ezin dugu isilik geratu, hain dira partzialak eta bidegabeak emandako arrazoiak! Bidegabeberia horri erantzun nahiak eramaitu eskutitz hau elkarrekin idaztera.

P. A. Sanchezek plano politikoan kokatzen du Ormaetxearen gutuna, "kritika politikoa oinarri hartuta" idatzita dagoela esaten du. Gezurra da. Joxe Antonioren plano erabat pertsonalean zuzentzen zaio Ormaetxea, zuka, eta eskutitzaren izenburuak berak garbi erakusten du hori: "Joxe Antonio, non zaude?" Eta UHLri (ez Joxe Antonioren) kritika egiteko, oso modu gaiztoan erabiltzen du Joxe Antonio, oraingo UHLrekin desados egon beharko lukeela erakutsi nahirik. Tratu pertsonal horri eusten dio Joxe Antoniok erantzunean, hika, eta horregatik da zilegi eta ulergarria arrazoi pertsonalak erabiltzea. Horiak horrela,

nor da delako P. A. Sanchez hori, Joxe Antonioren eta Ormaetxearen iritzi-truke pertsonalean bizipenen eta sentimenduen erabilera kritikatzeko? Gaiztoa izan behar da gero "Zer da zure egoera [pertsonala], eskudoa kritikarik ez izateko? Inmunitatea nahi al duzu?" bezalakoak botatzeko! Zitala.

Hara, Joxe Antoniok, udalean eman dituen hamasei urte luzeetan, herritarren iritziak eta kritikak kargu publikoari dagozkion ardurarekin jaso ditu, familiareen egoera inoiz hizpidera ekarri gabe. Orain, ardura publikoak erabat utzita dituela, inolako arrazoi biderik gabe jarri dute jendurereko ika-mikan Ormaetxeak eta P. A. Sanchez delako horrek. Batak maltzurki, eta besteak maltzurki eta zikin. Zer dela eta? Noiz arte behartuko dute denon ahotan egotera?

Joxe Antonioren kritika egiteko asmo horretan, mehatxatuz ari da delako P. A. Sanchez hori, besteak beste, orain dela hamar bat urteko kasuak aipatuz. Ikuspegi motza erakutsi, eta hala ere urrutira joan behar izan du, horratik! Hain urrutira joan gabe ere, erraz osa daiteke zerrenda luze bat, herri honetan mehatxuak, tratu txarrak, torturak, kartzela... jasan behar izan duten herrikideen kasuekin. Joxe Antoniok berak hainbat mehatxu, inhabilitazio eta

kartzelara joateko arrisku jasan behar izan ditu, herriaren borondatea defenditzeagatik. Eta, guk dakigunez, begirunez tratatu ditu beti gatazka politikoaren ondorioak jasan dituztenak. Areago, gatazkaren konponbidean aurrera egitea izan da Joxe Antonioren jardun politikoaren iparra. Denon eskubideak errespetatuz, denontzat onargarria izango den pakea lortzea, alegia.

"Zer pentsatu behar dugu zuk babestu egiten zenituela ekintza hauek? Laguntza ematen zenitela?" galderak egitean urrutira doa, berriz ere, delako P. A. Sanchez hori, eta zentzurik gabeko logika beldurgarria aplikatzen du, Espainia eta Frantzia aldeko zenbait fiskal eta epaileren estiloan. Ez dakigu zehar-salaketa doako horien tamainaz eta arriskuaz jabetzen den delako P. A. Sanchez hori. Kontu handi goa behar luke "ni enpresagizon bat naiz" esaten duen batek. Enpresagizona izango da, baina gizona izateko asko falta duela iruditzen zaigu.

Bukatzeke, eskutitz-truke honetan erabili eta endredatu dutenak salatzearekin batera, besarkada bat helarazi nahi diogu Joxe Antonioren.

Sinatzaileak: Aitor Eleta, Itziar Basterrika, Josune Unanue eta beste 18 lagun.

Okerrak zuzenduz

Iragan urtarrilaren 21ean, NOAUA! hamaboskariaren 197 aleko laugarren orrian, "Lotsagarria!" izenburua daraman gutuna argitaratu genuen *Ika-mika* izeneko atalean. Idatzi hori dela eta, hainbat bazkide galdezka etorri dira NOAUA!ko egoitzara. Sinaduraren benetakotasuna, hau da, Pedro Antonio Sanchezen izena benetakoa ote den jakin nahian.

Iaz, NOAUA!ko Erredakzio Batzordeak irakurleei eskainitako atala arautzeko "Ika-mikarako araudia" onartu zuen.

Araudi horren bigarren puntuak hau dio: "Ika-mikan argitaratzeko ekarritako

idatziaren egilea azalduko da testuaren amaieran, argi eta garbi. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da *Ika-mikarako* idatzia".

Gaurko egunean, ezin izan dugu sinaduraren benetakotasuna konprobatzerik izan. Hori dela eta, Pedro Antonio Sanchez delakoa ezizena bada, publikoki barkamenak eskatu beharrean gaude, "Ika-mikarako araudiak" dioen bezala,

"idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea" aurretik ez egiaztatzeagatik.

Honi lotuta, aurrerantzean, *Ika-mikarako* idatziaren egileak (edo kasuan kasu, idatziaren arduradun egiten denak), idatziarekin batera Naziotasun Agiria edo baliokidea aurkeztu beharko du NOAUA!ko egoitzan bertan. Neurri honek postaz bidalitako idatziei, zuzenean bulegora ekarritako idatziei edo e-postaz igortzen diren idatzi guztiei eragingo die.

Imanol Ubeda, urtarrilaren 31n

LIZARRALDE ilcapaindegi mixtoa
Permanente inteligentea, rizoen kiribilketa kontrolatuarekin.

Solarium-a, estetika, depilazioa, manikura, manikura frantsesa, pedikura, eta makilajea.

Zuhaitzenea, 5b Tel: 943 36 19 71



GLG
garraioak
ZABOR BILKÆT

TELF: 943 37 01 46





**KOLDO
HUEGON**

Txokoalde

Urteurren bat gogoan

Kaixo auzokide. Aldizkari honen zirrikituak bete asmoz, duela gutxi gonbitea luzatu zidaten, eta hasieran zalantzak izan banituen ere, nere garuneko neurona herdoilduak martxan jartzeko bederen, balioko duelakoan, hemen nator-kizue.

Aspaldi ez bezala, aurten, txikitan jasaten genuen negu gogor horietakoa suertatzen ari zaigu, elur txingor eta izotzekin, nahi adina oilagor etorri ez bazaigu ere.

Gainontzean, auzoari dagokionez, aspaldiko urtetan, asmo hutsean geratzen diren proiektu eta asmoak dira nagusi, hala nola, betiko etxebizitzaren kontuak, lanez gain, auzoaren zorigaitzeko ardatz bihurtuko den trenaren desdoblamentua, soziedadearen etorkizuna etabar. Baina gai hauen berri pixkanaka aurrerantzean emango dizuet.

Gaur, negu honek bezainbesteko hotzikarak sortzen dituen urteurren bat datorkit burura, nahiz eta auzoko mugetatik at izan, aipatzea merezi duena. Ausbitzeko konzentrazio kanpoaren askatzea, hain zuzen ere.

Duela urte batzuk, horrelako kanpo batean egoteko parada izan nuen, Matjausenena, eta zin dagozuet bizi guztian ez zaidala ahaztuko han sentitutako zirrarara, guztiok, bizitzan behin gutxienez, bisitatu beharko genukeen tokia, ea gure aurrekoek egindako ankerkeriez lotsatu eta mundu justuago bat eraikitzen saiatzen garen.

Baina badirudi ezetz, ze garai batean biktima izandakoak historiako pasarterik beltzenak idazten ari dira. Bukatzeko elkartasun besarkadarik beroenak XXI. mendeko konzentrazio kanpoetan harrapatuak dauden guztiei. Gora Palestina!



**ENEKO
HARREGUY**

Kaleberri

Nahiko nuke

Sarri, ni ere gauza askotaz akordatzen naiz. Akordatzen naiz jaio eta lehen ikasketa egunetarako Kalexarko ikastolara joaten nintzela amaren besotik eta malkotik tiraka. Biharko umeek ezingo dute hartaz akordatu, azken egun hauetan erabat suntzitzen ari baitira.

Akordatzen naiz kaxkoko frontoian pilotan genbiltzan une askotan nola nagusiagoak etorri eta frontoia utzi behar izaten genien. Gaur gogoratzen naiz helduak pilotaren atzetik joan behar duela.

Akordatzen naiz gure frontoi atzeko txirrista arriskutsu bezain erakargarriaz harro geundela. "Zuek herrian ez daukazue halakorik" gure defentsetako bat zela bestetakoaren aurrean.

Akordatzen naiz geldirik egon ezik beste edozer gauza egiteko gai ginenean, zenbat pilota joaten eta galtzen zitzaizkigun Paris etxeko aldameneko harresiaren atzera. Ez dakit nondik agertzen ziren baina gordeketa etxearen barruan ezkututzen ginenean, pilota mordoxka bat barreiatzen zen lurretik; agian, guk buruan generabilen mamuak

(halaxe uste baikenuen) sartzen zituen barrura.

Ikastolan, arratsaldeko lau t'erdia jo bezain laster egindako korrika saioaz akordatzen naiz, kiroldegia ireki zuteneko estreñoan. Eta Oiarde aurretik saskibaloia partiduak non jokatzen ziren: gero kotxe aparkaleku bihurtu zutena eta egun, urte gutxi batzuk arte ardiek jaten zuten belardiaren lursailekin bat egin eta Askatasun porlana arnasten den lekuan. Gogoratzen dut.

Akordatzen naiz entrenatzera bidean Harane erreka bera zein urruti zegoen iruditzen zitzaigula. Gaur egun, etxebizitzetaz estalia dagoelako-edo, ez zaigu hain urruti gertatzen.

Eta idatziaren mugak oztopatzen dizkidanez akordatzen naiz; eta akordatzen ez naizenak...!

Baina Harane futbol zelaiaz ere akordatu nahiko nuke. Euritan, lokatzez blai eginda arropak pisu asko hartzen zuen garaiaz. Ikuzgailuak garbitu ezin zituen arropaz (galtzerdi zuriak marroi amaitzen zutenekoaz). Jendea oso gutxi motibatuta izandu duen zelaiaz. Kirolariok geronek zainduko ez bagenu aspaldi kasu gutxi egindako zelaiaz...

Elurra mara mara, mozorroak prestatzera!

Agur bero bat herrikideoi! Zer moduz zabilazate hotzari aurre egiten? Egia esan, ez da batere erraza, ipar-haize hori edozein zirrikitutatik sartzen baita! Halere, ezin ukatu dezaket niri polita iruditu zaidanik. Komunikabideetan hainbeste entzun ondoren, zain ere bageundela esango nuke ea gure bazterrak noiz zurituko. Eta tira, asteazken goizean jeiki eta dena zuri! Noski, denak bezala, honek ere badu bere alderdi txarra eta hori errepi-deena dela esan behar. Dena ezin baita!

Eta orain beste gai bati helduz, argazkian azaltzen direnak ezagutzen al dituzue?

Eta argazkia non aterea dagoen? Zenbatek egin ote dute jolas bertako txoko eta bazterretan.

Pasa den egunean Ihauteri gaiaren inguruan hizketan genbiltzala, aurtengo gaia "Indioak eta bake-roak" zela eta, hortxe ibili ginen zerbait egingo ote genuen berriketan eta dudatan.

Egia esan, oso festa alaiak direla iruditzen zait, barrea berezkoa duten jaiak baina, hala ere, gehiegi



animatzen ez garenaren sentsazioa daukat. Horregatik, eta beti ere gauzak errazte aldera, argazki hau jarri nahi izan dut tartean bakeroak daudenez eta ziur indioen bat ere egongo dela, hartu ideiak, ireki armairuak, hartu trapuak (hotzari aurre egiteko) eta atera kalera, norbere buruaz barre egiten jakitea baino gauza hobegorik ez da eta!

Aio, ondo pasa eta ondo izan!

Kalezar



MAIDER
MAKAZAGA

Horrela ezin da

Elurra ari du. Bi gradu kanpoan. Baina beno, Urbil-era noa; etxetik irten, autobusa hartu... Ah ez, egia! Autobusa hartzeko ia herritik atera behar dut eta! Eta trena? Ez, trena ez. Oraindik urrutiago dago eta, Errekalden izoztu ondoren, Lasarten gelditu beharko dut.

Beraz, banoa oinez Etxealdiako zubi azpira. Bukatu gabeko San Inazio errotonda ondoan autobatek ia harrapatu nau eta espaloia bila hasi naiz. Non ote? Zubi azpira iritsi naizenerako ez ditut sudurra eta behatzak nabaritzen. Hori gutxi balitz, kotxe batek sabaian zuen elurra gainera erori zait.

Badator autobusa (10 minutu berandu). Ezkerreko hanka oraindik zintzilik dudala martxan jarri da. <<Jesus, gizona!>> (ia erori naiz). Txanponak bilatzen hasi naiz. <<Urbilera zenbat?>>, <<95 xentimo>>, <<Zeeer? Hemendik Txiki Erdira?>>. Balantzaka eta ahal dudan moduan metalezko barra heldu dut (lekurik ez). Ai, ez nintzen oroitzen! Hau ez da "barrura" sartzen. Txiki Erdiko geltokira iritsi, autobusetik salto egin eta oreka berreskuratzen dudan bitartean autoen azpian ez bukatzea lortu dut.

Espaloia?

Fabrika artetik nabilela ideia bat darabilt buruan: ez al zegoen ba "hurbil"? Benetan 2005. urtean gaudela? Ez al da errazagoa izango duela ia mende erdi gure aita egunero ibiltzen zen bezala oinez etortzea?

Urbil-eko aparkalekuan kotxe baten aurretik "sprint"-a bota ondoren barrura sartu naiz. Pare bat ordu beranduago beldurtzen hasi naiz; orain ere zubi azpira?

Noiz arte jarraitu behar dugu usurbildarrok Indiana Jones bezala, oztopoak eta arriskuak gainditzen, gure herriko auzo batera joateko? Gainera Donostiako bidaia ordainduz? Noiz arte tren zerbitzu hau, Txiki Erdin geltokia duen arren gelditzen ez dena? Eta noizko Urbilen autobus geltoki seguru bat (bidaia guztietan)?

Dirudienez ahaztu zaigu garraio publikoa bultzatu behar dugula. Baina horrela ezinezkoa da! Argi dago Euskotrenek Usurbilen duen kompetentzia ezak gureganako ardura falta ikaragarria dakarrela. Argi dago gurekin nahi dutena egiten dutela. Eta gu begira gelditzen gara.

Atxegalde



NEREA
KORTA



ZALOA
LEOZ

Santutenea

Auzoa bizi berritua

Azken urteotan ikusi dugu gure auzoko dinamika nahiko eskaxa zela. Egia esan auzo guztietan gertatu den gauza izan daitekeela esan dezakegu. Askotan entzun izan dut, balonmanoko aktibitate guztia kiroldegira pasa zenetik erabat jeitsi dela auzoko bizia. Festetan ere gero eta jende gutxiagok parte hartzen du. Egia esan, gazte asko joan da gure auzotik etxebizitzan kontua dela eta.

Nik beti pentsatu izan dut edozein dinamika galtzen denean ezin dela behartu eta jendearen inizatibarik ez dagoenean ezin dela ezer egin. Gaurko honetan, berriz, notizi on batekin nator. Asko poztu nauen berri bat dakarkizuet NOAUA!k eskeintzen digun txoko honetara. Auzoko zenbait gurasok elkarte bat osatu dute. Ez dakit gurasoen elkarte deitu edo auzotarre-

na soilki.

Kontua da, badirela hilabeteak beraien eskaerak egiten hasi zirela. Eskaera hauen aurrean udalak, hurrekin ibiltzeko (aterperik ez baita) eskola txikiko gela utzi zien. Dagoeneko, ordea, elkarte moduan antolatu dira eta beste eskaintza batzuk ere luzatu dituzte auzotarrentzat. Ikastaroak antolatu dituzte edozeinentzat eta horien artean helduentzat dantza ikastaroa.

Goz hasi dira auzotarrak lanean, kartelak, bilera dialdiak... egin dituzte dagoeneko. Deialdiak auzoko horma eta portaletan ere jarri dituzte, baina agian bada norbait oraindik enteratu ez dena eta animatuko litzatekeena horrelako ekimenetan. Beraz, zorionak guzti hau egiten ari direnei eta animatu ideiak dituen gainontzeko guztiak gerturatu eta parte hartza.



ALAZNE
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Teilatu txuriak

Ez dakit aurtengo negu honetan zer gertatzen den baina beti gaude alerta egoeran. Haizearengatik ez bada, hotzarengatik...

Eta azkenean, irratian eta telebistan hainbeste entzun eta gero, hotz "siberiarra" iritsi da gurera. Asteazken goizean txuritu zitzaigun ingurua. Nahiz eta elurrak ez duen denbora asko iraun, zoragarri zeuden inguruko paraje guztiak: erriberako baratzak, mendi aldea, etxeek ere oso itxura polita zuten beren teilatu txuriekin.

Elurrak beti izan du halako majia moduko bat. Ni gogoan dut, txikiak ginenean elurra egiteko zer ilusio izaten genuen. Aiamendi txuritzen bazen, gurean ere elurra egiteko aukera handia zegoen. A ze urduritasunak! Goizean jeiki eta lehenengo gauza lehiotik begiratzea izaten zen. Elurra egiten zuenean pozik! Egun guztia izaten genuen elurretan jolasean aritzeko eta gainera ez zen ikastolarik izaten.

Oroitzapenak! Orain ordea beste kezka batzuk ditugu buruan. Elurra egiten badu lanera joateko arazoak izango ditugula, errepide txarrak...



Ilusioa ez beste guztia ote den ere sentitzen duguna!

Nire etxean esaten duten bezala: "elurra oso polita da, baia, baina leihotik begira egoteko". Nik pentsatzen dut, barruan dugun ume horri ateratzen utzi beharko geniokela noizean behin. On egingo liguke denoi, estresak alde batera utzi eta elur-egun hauetako batean, elur-bolak elkarri botaz pixka bat disfrutatzea.

Ea aukera izaten dugun!

Saltsa frontoi inguruan

Kaixo denoi! Aurreko aste horretan ez dugu Kgiro izan, eh! Siberiatik zuzenean etorritako haizeak eta ekaitzak ederki freskatu ditu bazterrak. Etxe gehienetako tximinietatik kea etengabe ateratzen zen. Denok ere, epelean gusturago geunden eta kalean ez dugu jende askorik ikusi. Elurra egin du bai, baina errepideak arriskutsu jartzeko gaina besterik ez. Gustura hartuko genuke inguruak txuri-txuri jartzen dituen horietako elurtexoren bat, plastikoak hartu eta belardietan behera jaisteko baina...

Azken asteburu hauetan, Aginagako frontoiaren inguruan saltsa pixka bat sortu zaigu. Izan ere, Berria txapelketako partidak bertan jokatzeko ari dira. Txapelketa hau Euskal Herriko klubetako dugu eta hementxe dabilta probintzia guztietako pilotariak txapelketa irabazi nahian. Esan bezala, kanpoko jendea etortzen da beraien herriko pilotariak animatzera, baina hala ere ez zaigu frontoia betetzen, beraz animatu denok eta akaso hemen ikusiko ditugu etorkizuneko "Titin" eta gainontzekoak.

Sagardotegi garaia ere iritsi zaigu, inguruko sagardotegietan badabil jendea. Azkenaldian modan jarri zaigu hauetara autobusean joatea eta ez da ideia txarra. Badakizue, behin hara joanez gero txotx batzuk egin behar izaten dira eta gero autoa hartzeko egoerarik onenean ez gara izaten askotan. Eta honekin lotuz, gehienok badakizue errepidean nola dauden 50 kilometro orduko baina azkarrago ez joateko seinaleak. Batzutan ahaztu egiten zaigu hauei kasu egitea eta azkarxeago pasatzeko tentazioa izaten dugu, kontuz! Orain dela aste batzuk 80 kilometro orduko abiaduran joateagatik norbaiti 400 euroko multa jarri omen diote, ederra broma! Askotan min gehiena honek ematen digu, multa ordaindu behar izateak, baina kontuan izan behar dugu errepide hau herriaren erdi-erditik pasatzen dela eta jende askok gurutzatzen duela oinez, beraz, adi ibili behar dugu edozein momentutan aitona-amonak edo haurren bat topa dezakegulako errepidea gurutzatzen. Hurren arte!

Aginaga



**AINHOA
SALSAMENDI**

Gure nortasuna kolokan

Joan den eguneko egunkarian agertzen zenez, Donostiako Udalak badu Zubieta aldean etxeak eraikitzeke asmoa epe motzera. Odon Elorza jaunak adierazi zuenez, Hipodromo aldean, 1.278 etxebizitza egiteko asmoa dute, erdiak babes ofizialekoak izango direlarik, eta beste erdiak merkatu librekoak. Eredu hau, hipodromo gainaldean kokatzen da, Zubietako mendi aldera. Plan hau, 405.000 metro karratuetan egingo da, Donostiako Gros auzoak duen zabalera berdina. Plan horretan ere, badirudi beste asmoak ere badituztela, hala nola Hipodromo berritza eta beste instalazio batzuk eraikitzea.

Ikusten denez, ez da makala Donostiako Udalak egin nahi duena, etxe mordoak baita eta horrek dudarik gabe, bere eragina izango du. Aspalditik entzuten dugu, bai, Donostiako Udalatik eta baita Jaurlaritzatik ere, zenbait plan urbanistiko badituztela Zubietarentzat; dirudienek, Zubieta oso goxoki gozoa da, izan ere, Donostiatik hurbil egonez, terreno zabalak eskeintzen ditu etxeak eraikitzeke eta hori, aro hauetan, oso gustagarria da zenbait politi-



ko eta promotoreentzat.

Ikusi beharko da etorkizunean, "zubietar" berri horiek, zenbateraino inplikatzeko diren herriko ekintzetan eta zenbateraino hartuko dute bere burua zubietartzat, nik nere zalantzak baditut.

Bistan da nire ustez, hau hasiera besterik ez dela, etorkizunean aldaketa haundiak ezagutuko ditugu gure herrian, eta ez dakit guztiak onerako izango diren...gure zubietar nortasuna kolokan ikusten dut.

Zubieta



**MIKEL
BENGOETXEA**

Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarean sartuko da Usurbil

Urtarrileko ohiko udalbatza plenoan, Usurbilgo Udalak Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien Sarean sartzea erabaki zuen (Udalsarea 21 delakoan). Era honetan, EAEko hiru lurralde historikoetako beste 37 udalerrirekin bat egingo du Usurbilgo Udalak.

Funtsean, Tokiko Agenda 21 dinamizatzeko osatu zen Udalsarea 21 bilgunea.

Euskal sare honek gaitasun teknikoak eta metodologikoz hornitu nahi ditu udalak, Tokiko Agenda 21 prozesua eta jasangarritasuna udal-kudeaketan txertatu asmoz.

Era berean, udalen esku beharrezko baliabideak jarri nahi dira, Tokiko Agenda 21en garapena errazteko eta hobetzeko asmoz.

Ez hori bakarrik. Udalen eta administrazioen arteko komunikazioa, lankidetzeta eta informazio-trukea ere sustatuko du Udalsarea 21 taldeak. Era honetan, udalaz gairako politiken garapenean jasangarritasuna txerta dadin lan egingo



JASANGARRITASUNAREN
FILOSOFIA TXERTA DADIN SORTU
DA UDALERRIEN EUSKAL SAREA.

du udalerrien Euskal Sareak.

Usurbilgo Udalak, hartu duen erabakiari esker, Tokiko Agenda 21 prozesua finantzatzeko gaitasuna handitzeaz gain, proiektu komunak garatzeko laguntza jaso ahal izango du.

Usurbilgo Udala, 2002ko martxoaren 13tik Buruntaldeko Udaltalde 21ean da. Orain, EAEko beste 37 udalerrirekin batera, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarean izango da, Udalsarea 21 delakoan.

Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko mozioa aurkeztu zuen UHLk

Usurbilgo Herri Lan plataformak (UHL) euskal presoan aldeko mozioa aurkeztu zuen urtarri-leko ohiko plenoan. UHLren proposamena, ordea, ez zen aurrera atera. EAK eta EAJ-PNVk, euren balorazioa azaldu eta gero, abstentzioari heldu zioten. PSE-EEk eta PPK, berriz, UHLren mozioaren aurkako botoa eman zuten.

“Euskal Preso Politikoen Kolektiboa, gainontzeko euskal eragileen gisan, Euskal Herriaren hitza eta erabakia gauzatzeko bidean, zuzenean parte hartzeko duen eskubidea aldarrikatzea” eskatu zion UHLk Udalari. Hala nola, isolamendu eta sakabana-kearekin bukatu eta euskal presoek

Euskal Herrian egoteko duten eskubidea bere egitea; presoan borrokaldiarekin bat egin eta antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzeko deia herritarrei luzatzea eskatzen zitzaion Udalari. Mozioa ez zen aurrera atera.

Europako Konstituzio itunaren alde bozkatzeko mozioa

Alderdi Popularreko zinegotzi den Manuel Michelenak Europako Konstituzio itunaren aldeko mozioa aurkeztu zuen. Sentsibilizazio kanpaina abiarazi eta itunaren alde azaltzea eskatzen zion Udalari. PP eta PSE-EE alde bozkatu arren, mozio hau ez zen aurrera atera, EAK eta EAJ-PNVk aurka bozkatu zutelako.

Kultur Etxeko ekipamenduak

Urtarrilaren 18an egin zen ez-ohiko tokiko Gobernu Batzordean erabakitakoaren arabera, Monttoren altzariekin hornituko da Kultur Etxe berriko liburutegia. 74.348,22 euroko inbertsioa egingo da.

Gobernu Batzorde horretan bertan, ekipamendu eszenikoak hitz egin zen. Auditorioaren ekipamendu eszenikoak Telesonic SA enpresak egingo du. 58.576,46 euroko inbertsioa eskatuko du auditorioaren lehen zatiko ekipamendu eszenikoak.

Administrari laguntzaile lanpostua

Urtarrilaren 25ean, ohiko tokiko Gobernu Batzordean, administrari laguntzaile lanpostua osatzea erabaki zen.

Usurbilgo Udalan, administrari laguntzaileak aldi baterako kontratatze-ko eta interinoki izendatzeko beharrak sortu izan dira. Beraz, administrari laguntzaileko lanpostua behin betiko izaeraz kontratatu bitartean, lanpostua bat osatzea erabaki da.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratu arte oinarriak ez dira baliozkoak izango.

Itsasikararen ondorioei aurre egiteko dirulaguntza

Asiako hego-ekialdean izandako Itsasikara dela eta, Eudel Elkarteak hondamendiak eragindako kalteak arintzeko Laguntza Fondoa sortzea erabaki du. Modu horretan, interesa duten udalek egoki deritzoten diruekarpena eman ahal izango dute. Honi lotuta, Asiako hego-ekialdean izandako itsasikarak eragindako kalteak arintzen lagundu asmoz, Usurbilgo Udalak Eudel Elkarteari 27.000 eurotako dirulaguntza ematea erabaki du.

Lan munduan euskara sustatzeko plana adostu dute Buruntzaldeko Udalek

Euskara gizarte esparruak irabazi nahian dabil azken urte hauetan: Irakaskuntza, administrazioa...

Lan mundua eremu estrategikoa da euskararen etorkizuna bermatu nahi bada. Hainbat erakunde eta enpresek heldu diote erronka horri, euskararen normalizazio planak abian jarritz. Horien artean dira Buruntzaldeko udalak.

Euskara lan munduan txertatzeko erronkarekin bat egin dute Buruntzaldeko hainbat udalek. Andoaingo, Astigarragako, Hernaniko, Lasarte-Oriako, Urnietako eta Usurbilgo udalak aspalditik ari dira euren herrietan euskararen erabilera normalizatu nahian.

Buruntzaldeko aipaturiko udalek batera egiten dituzte hainbat lan eta ekimen, euren ahaleginak optimizatu nahian. Horietako ekimen bat honakoa da: lan munduan euskararen erabilera normalizatzeko plana.

Plan hori garatzeko Jarraipen Batzordea osatu da Buruntzaldean. Batzorde hori, udaletako, lanbide heziketako eta sindikatuetako ordezkariak osatzen dute.

Buruntzaldeko udalek, dena den, Emun Hizkuntza Aholkularitzaren laguntza izango dute. Emunek euskararen erabilera normalizatzeko planak diseinatu eta inplementatzen ditu enpresetan, erakunde publikoetan, eskualdeetan...



PLANA GARATZEKO JARRAIPEN BATZORDEA OSATU DA BURUNTZALDEAN.

Plan horrek bi zati izango ditu: batetik, euskara normalizatzeko lan munduaren garrantzia gizarteratzeko komunikazio plana osatu. Bestetik, herri horietan hainbat esperientzia pilotu abian jartzeko sustapen plana bideratu.

Horretarako, urrats hauek emango dira:

enpresei eskutitza eta triptikoa bidali, hainbat enpresekin telefonoz harremanetan jarri, bilera eguna zehaztu, euskara planak enpresari aurkeztu, esperientzia pilotuak martxan jarri...

Esperientzia pilotuak aukeratu ondoren, enpresa bakoitzean euskararen erabilera normalizatzeko planak diseinatu eta inplementatuko dira. Horretarako, udalek eta Eusko Jaurlaritzak enpresa horiek diruz lagunduko dituzte. Beraz, horiek dira ekimen honen erronkak: herri bakoitzean hainbat esperientzia pilotu abian jartzea; eta enpresa bakoitzean euskararen erabilera normalizatzeko plana diseinatzea eta inplementatzea, eta enpresa horietan euskararen erabilera handituz enpresei hobetzen laguntzea.

Zendoia

943 37 40 21

ERRAZ IN
Igeltzer tza
r rra

K I N u s . l
T I F 3 3 1 2 7 1 3 5 1 2 5
S n f u ■ M 2 2 5 5

al s p s t e r a

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria
Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

LATAILLADE
ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA

KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK ETA MANTENIMENDUA

Aritzaxo Kalea, 6
Behera

Tel: 943 863 848
Mugikorra: 609 888 921

MAHUKA

G z n t m k u m z k n
m k r r u z t
h m n u r k t u k u z u

Etx st k l . 3
T I F 3 3 1 1

Zutik ondo dagoenari eutsiko bagenio...

Orain duela zenbait urte Amagoia Mujikari agindun zerbait idatziko nuela NOAUA! honetarako. Noiz, zehaztu gabe. Zorrotzeko zubipetik pasa da geroztik urik, bai eta uholderik. Hobe noizbait inoiz ez baino, ez, Amagoia? Ugarte baserriari buruz hasiko naiz.

Ugarte baserria botatzera zijoazela lehenengoz irakurri nuenean, aldizkari honetan, hain xuxen, halako izugarrikeria iruditu zitzaidan, non uste izan nuen albiste honen emailearen, Zalao Arnaizen, gaizki ulerturen bat izango zela, eta, egia esan, ez nion kasu haundirik egin. Geroztik, ordea, izan da beste albitterik, eta ez zorionekorik, zoritxarrez. Zaloak ez zuela gaizki ulertu, alegia.

Lehen etorri zaidan galdera: "Erotu al gara, Ugarte bota?". Usurbilen eraikuntza eder asko dugu, eta hauen artean ederrenetakoa, zalantzarik gabe, Ugarte baserria. Eta ez gure herrian bakarrik, Euskal Herri osoan ez dira beste hogeitasei baserri egongo honen mailakoak, ez haunditasun nola edertasun aldetik. Gu, bertakook, ohituta gaude, baina kanpoko norbait etortzen zaigunean, eta baserri honen aurpegiaren zabaltasun oparoa ikusten, harriritu geratzen da. Harrituago oraindik atzekaldea ikustean, ohi ez bezala, are oraindik ederragoa baitu, bere harri landuzko eskailera zabal eta horma irtenekin. Teilatua, berriz, Puntapax aldetik begiratzean, lehen hitza: "Hori ez dek, motel, teilatua; hori enparantza dek!" Erreparatzekoa da ere, baserri honi aldaketak egin behar izan dizkionenean, hala nola tolare-sagardotegia eta beste etxe-ordekoa erantsen, zein egoki eginak izan diren, berriak zaha-rrari irainik egin gabe. Eta hau botatzekotan gabilta!

Jakoba Errekondok oraindik orain aipatzen zigunez, Usurbilen hiru baserri omen dira bi ardatzeko



"ANAIA ETA BIOK TXALAPARTA IKASTEN HASI GINENEAN, TOLARE HORREN ONDOAN EGIN GENITUEN HASIERAKO SAIOAK".

tolareak dituztenak: Zubietako Aizpurua, Urdaiaigako Saltxipi (orain dela gutxi arte) eta Ugarte. Honen tolareari, oso zabala denez, azpikalde-tik eusteko jarri behar izan zizkieten zurezko habe eta kapirioak -azpi zumillak- ikusgarriak dira benetan -jatetxea, hor, tolarepean zegoenean guztiok ondo ikus genitzakeenez; horrelako zurajerik ez dut beste inon ikusi. Neurri horietako materiala ateratzeko, gutxienez larehun bat urteko haritzak beharko zituzten. Eta hau jo ta bota?

Anaia eta biok txalaparta ikasten hasi ginenean, tolare horren ondoan egin genituen hasierako saioak, bertako patzolak erabiliz, tolareak beti botatzen zuen sagardo lurrinez inguratuturik.

Bertako arkitekturaren eredu

Ugarte, hemengo arkitektura jatorraren, euskal senak hemen sortu eta garatuaren, eredu gain-gainekoa da -Saroe eta Atxega jauregiak baino arago, bistan da-. Harri landuz nola gordinez eta zurez egina, garai bateko hargin- eta zurgin-maisuek, aurrekoengandik jasotako jakinduria

baliatuz, ohi zuten zentzu eta trebetasunez egina; luxurik eta alferrikako apaindura haundirik gabe, edertasun soil eta halako jauntasuna berekin duela. Jauregi bat da, zinez, eta guretzat, beste biak baino zenbatez jauregiago! Gaur etxeak, edo etxe izenekoak, lurraren erraietan behera sartu egiten dira; baserriek, aldiz, lurretik gora sortuak dirudite, inguruko zuhaitzak edo mendixkak bezalaxe. Horietakoa dugu Ugarte, eta hala bizi dugu usurbildarrok ere; hor ezagutu dugu beti jai ezkerrezkotik, geure paisaiaren osagai bizi bezala. Haren aurretik igarotzean gogora datorzkigu bertan mendeetan zehar bizitu diren, eta Usurbil egin diguten, hainbat eta hainbat familia. Usurbil hiribildu bezala eratu zenean duela seirehundurik gora urte, Josu Tellabidek dioenez, Ugartekoak tartean zitezkeen seguru-enik. Ugarte oinetxe da, hau da, leinu edo familia baten sortetxea. Eta oinetxeak herri baten zutabeak direla ezin dezakegu ahaztu, bai historia, bai ekonomia nola kultura aldetik. Eta hori ezereztekotan gabilta?

Askotan baserriak botatzeko aitzakia, hauen egoera txarra konponezina

dela eta, edo Eguzkitzaren kasuan, herriko sarrera galerazten zuela, edo Aitzear eta Alperro, pabeloiak egin behar zirela eta, izan ohi da. (Egia esan, berehala bilatzen dituzte zaharra bistatik kentzeko aitzakiak; beldur dira, nonbait, egingo duten berriaren zatarkeria nabarmenegi geratuko ez ote den zaharraren edertasunaren aldean). Baina Ugarterekin ez da horrelakorik, ez du biderik galerazten, eta gainera ez duela urte asko zaharberritua da zeharo, eta ez nornahiren gidaritzapean, baizik eta azken mende erdi honetan gure herriak eman duen arkitektoen ospetsuenaren, Luis Peña Gantxegiren. Hain zuzen, duela gutxi estatu espainiarreko Arkitektoen Kolegioak urrezko domiñaz ohoratua, bere bizitza guztiko lan bikainagatik. Zer asmorekin eta nola egin zen gogoratu nahi dugu orain.

Duela 30 urte berreraikia

Duela hogeitamarren bat urte, baserriaren egoera txarra ikusita, gain eta barren, aldaketak egin beharrean gertatu ziren Ugarterkoak. Orduko nagusiak, Erramun Etxeberria-Berreartza zenak, adiskideak ginenez, galdetu zidan, ea lanotarako Peña Gantxegi arkitektoari deitzea zer iruditzen zitzaidan. Luis bera eta bere lana ezagutzen nituenenez, oso egokia zela esan nion. Arkitekto honek bezala gutxik ezagutzen zuen euskal arkitektura, eta gutxik bezala erabiltzen berau etxegintza berrian. Baina, Erramunek, baserria inondik ere bota gabe zaharberritu nahi, baserriak bere arnasa galduko zuen beldur. Ezinezkoa zela esan zion Peña Gantxegik, hormetako mortairua zeharo hondatua zeukala eta, baina lasai egoteko, behar bezala egingo zirela lanak, lehengo izango zela Ugartere. Orduan, Erramunek, deseraiki behar bazen, gero guztia lehen zegoen bezal-bezalaxe uztekoan. Beraz, harriz harri eta zurez zur deseraiki, ustelak baztertu, eta berriro, dena, harriz harri eta zurez zur, gora, bakoitza lehen zegoen tokian kokatuz, berreraiki zuten baserria. Barrengo zuraje-lana -



“UGARTE DINETXE DA, HAU DA, LEINU EDO FAMILIA BATEN SORTETXEA. ETA DINETXEA HERRI BATEN ZUTABEAK DIRELA EZIN DEZAKEGU AHAZTU”.

haritzez, nik uste-, baserrietan ohi zenean oinarrituz, bikainki diseinatu zuen Peña Gantxegik. Azeri larrutzea baina nekezagoa, baina zaharberritze eredugarria egin zuten, lehengo itxura eta egiturari eutsiz. Erramunen portaera ere eredugarria -zoritzarrez bakan gertatzen dena-, ez baitzuen inork horretara behartzen, eta, noski, askoz merkeago zitzaiokeen bestela egin balu. Garbi utzi zuen Ugartereko nagusiak, nahiz eta bere askaziarena ez izan, oinetxe horren duin zela, jaun bat zela: Dirua baino lehenagotzat zeuzkala bere arbasoak, lehengo eta oraingo herriarekiko begirune eta maitasuna. Zaborregian bukatu behar al du gizon honen ahalegina?

Gaur egin nahi dutena Ugarterekin, Erramunek ere egin zezakeen; ba zekien ondo asko nola egin, enpresaburu zenez, eta zinegotzi eta diputatu izana, gainera. Baina ez zuen egin.

Kultura kalean

Alde askotatik da garrantzitsua horrelako baserria herri barruan egotea, urrutira joan beharrik gabe, herritarrek eguneroko bizitzan berarekin

topo egin eta bere edertasunaz gozatu ahal izatea, naturalki. Hau da, kultura kalean, eta ez soilik museoetan edo liburutetan edo eskoletan. Baserriaren ikusteak, mendeetako gu guztion historia bizierazten digu; bertan bizitukoaren bizimodua gogoratzen: Nola ziren bertan jaiotzen, hazi, hezi, bizi eta hiltzen, eta garai batean, nola etxe ondoko baratzean lurperatzen zituzten lur gozoan, horrela biziak eta hilak senitartean bizitzen jarrizten zutelarik. Jende normala nola bizi zen eta den ez ahaztea komeni zaigu, batez ere, geuri, beti kanpoan gabiltzanok: Jaio, ospitalean jaiotzen; biberioa hartu, haurtzaindegian; hazi, eskolan; hezi, telebista barruan; bizi, fabrian; zahartu, zahar-etxe dotoreetan; eta ehortzi, tanatorian lurperatzen gaituztenoi, behin apainki makilatu ondoren, hildakoen itxura txarrik eduki ez dezagun. Ahaztuko zaigu bestela zentzuzko bizimodurik izan daitekeenik ere. Gogoratzen garen bitartean, beti dagoke itxaropenik!

JosAnton Artze

Datorren alean jarraituko du

Zubietako Eskola Txikia, oraina eta etorkizuna

Seme-alabak ditu Edurne Arregik. Biak, Zubietako Eskola Txikian ikasitakoak. Alaba jada Udarregin da. Semea, berriz, datorren ikasturtean Zubietara utzi eta Udarregin hasiko da. Azken urteotan, Haur Hezkuntzako ziklo osoa eta Lehen Hezkuntzako lehen bi ikasturteak egin ondoren, Udarregira joan ohi dira ikasleak. Datorren ikasturtean, ordea, egoera bestelakoa izan daiteke. Izan ere, orain dauden ikasleen herenak-edo datorren urtean bukatzen baitu Zubietako etapa. Horrek zer esan nahi du? Matrikulazio berririk ematen ez bada, ikasle faltan, eskola arriskuan egon daitekeela. Santuenean antzeko zerbait gertatu zen duela ez hainbeste. Horren beldur dira Edurne eta gainontzeko gurasoak.

Zubietan, ikasle kopurua txikia izan da azken bolada honetan. Baina orain artean ez da arazo-iturri izan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Delegaritzak, duela urte batzuk, baldintza bat jarri zuen: eskola bizirik mantendu ahal izateko, urtero bi haur berri matrikulatzea, gutxieneko kopuruari eutsiz. Orain arte, nola edo hala baldintza hori bete da. Baina datorren ikasturtean gauzak bestelakoak izan daitezke. Delegaritzak, ez ahaztu, Eskola itxeko aukera du.

Etxebizitza berrien baitan

Baina Zubietan etxe ugari egin berri dira-eta, nola da posible? Pentsatuko duzu. Kontua da etxe berrietako lanak ez direla oraindik amaitu. Etxe-jabeek abuzturako espero dituzte giltzak. Bien bitartean, etxe berrien jabeek Usurbil, Lasarte-Oria edo Donostian bizitzen jarraitzen dute. Giltzen esperoan. Bien bitartean, Usurbil, Lasarte-Oria edo Donostiako ikastetxe edo haurtzaindegietara eramaten dituzte haurrak. Bitxiena zera da: bizilagun berri gehienak zubietarrak izango direla. Egun Zubietatik kanpo bizi direnak, baina etxe berriekin batera herrira itzuliko diren zubietarrak.

Zer behar du Eskola Txikiak bizirik irauteko? Matrikulazio berriak. Eta gakoa zubietarren esku dago. Laster, *deserriatik* herrira itzuliko diren zubietar bikoteen esku. Izan ere, nahiz eta giltzarik eskuratu ez, nahiz eta Zubietan oraindik bizitzen



2003KO ERRETRATUAN JULEN IÑARRA, HARITZ BERASATEGI, ANDER IRURETAGOYENA, TXOMIN BORDAGARAY, ESTITXU BERASATEGI, MANEX MARTINEZ DE GUEREÑU ETA IKER ZALDUA. INFORMAZIO GEHIAGO, 943 37 29 31 TELEFONOAN (IDOIA EDO MILA)

hasi ez, haurrak bertako Eskola Txikian matrikulatu ditzakete.

Edurne Arregi gurasoetako bat da. Ahalegin handia suposatzen duela aitortzen badu ere, zera adierazi nahi die laster Zubietako etxe berrietara bizitzera etorriko diren gurasoei: *"beren haurrak Zubietan eskolatzeko aukera kontuan har dezatela"*. Badaki batzuentzat ahalegin handia izan daitekeela, egunero bueltaka ibili behar izatea. Baina akaso datozen urteetarako utziz gero, berandu izan daiteke. Etxe berrietara bizitzera etortzerako, Eskola itxirik egon daiteke-eta.

Eskolaren zerbitzuak, matrikulazioaren arabera

"Baten batek esan dezake: beste ikastetxetan ordutegi zabala, garraioa eta jangela-zerbitzua eskaintzen dituzte. Tira, horregatik ez dadila izan. Zubietak ere garraioa, jatetxea eta ordutegi malgua eskaini dezake", adierazi digu Edurne Arregik. Matrikulazioaren arabera dago hori guztia. Matrikulazioak gora egingo balu, zerbitzuak ere handitzeko aukera egongo litzateke. Dena katea bat da.

Zubietakoak izango diren haurrak Zubietatik kanpo ikasten ari diren bitartean, badira "kanpotik" etorri diren ikasleak. Haur Hezkuntza garaian, 25 ikasleen gela ordez, kopuru murrizteko gela alde egin duten gurasoei esker.

Horietakoa da Maite Azpiolea. Lasarte-Orian bizi da eta inguruan eskola publiko duen arren, umea Zubietara eramaten du. Eta ez da bakarra. Badira eskola-erdua gustuko dutelako, Lasarte-Oriatik, Donostiatik edo Errekaldetik espreski etorri izan diren gurasoak.

Maite Azpiolea Zubietaren aldeko apustua arrazoitu digu: *"umeak koxkorrak diren bitartean, aberasgarria da gela berean adin ezberdinekoekin aritzea. Adin horretan, helduagoen erreferentzia garrantzitsua da. Gainera, gela masifikatuetan baino talde txikietan errazago integratzen da haurra"*. Zubietako ingurua ere bada pisuzko arrazoi Maitentzat: *"eskolak parkea, belarra, zuhaitzak ditu patioan. Kaleak oinezkoak dira, frontoia berria da eta zarata gutxiko herria da"*.

Eskola, herriaren etorkizuna

Maitek azaldu digun bezala, *"badira umeak Usurbildik Lasarte-Oriara eramaten dituztenak. Badira Lasarte-Oriatik Usurbila eramaten dituztenak. Zergatik ez eskola txikietara? Herri txikietako bizitzan garrantzi handia dauka eskolak zabalik irautea. Belaunaldi berrien mesedetan. Eta gurean"*. Beste datu interesgarri bat ere eman digu. Aurten Zubietan izan diren 4 matrikula berriak ez dira Zubietako umeenak izan. Bat Usurbilgoa, bestea Añorgakoa eta bi Lasarte-Oriakoak. Bitxia, ezta?

Inauterietan, "Oeste" giroan

Aurten, Santa Ageda eta Inauteriak egun berean sueratu dira. Udarregi Ikastolan, esate baterako, ospakizun bakarra egingo da otsailaren 4an. Biharamunean, ordea, hainbat koadriren ahaleginari esker, Amerikako "Oeste" itxura hartuko du herriak. Hori otsailaren 5ean izango da, larunbatean. Baina ez ahaztu "Angularen Ehorzketa", Zumarte Musika Eskolak otsailaren 8rako antolatu duen ekitaldia.

Inauteri giroa, lehen lehenik, Udarregi Ikastolara iritsiko da. Otsailaren 4an, ostirala, Goizeko 10:00etatik 11:30era, ikasleek kale kale girotuko dute herria, batera dantzatzuz. Hiru talde egingo dituzte (Lehen Hezkuntzakoak bi talde eta hirugarrena DBHkoak) eta hiru ibilbide ezberdinetik zehar arituko dira.

-10:30etatik 11:30etara, Haur Hezkuntzakoek Santa Ageda bezperako ohiturari eutsiko diote.

-11:30etatik 12:30etara, denak batera, kiroldegian.

Hori otsailaren 4an izango da. Hurrengo egunean ere, Inauteria izango da nagusi. NOAUA!k antolatu duen festan, haurrak eta helduak izango dira protagonistak.



IAZ, GAZTE HAUEK IZAN ZIREN INAUTERIETAKO PROTAGONISTAK.

Santa Ageda eskea

Bertso Eskolakoak ere, nola ez, Santa Ageda eskean irtengo dira otsailaren 4an. Bertso Eskolak antolatutako ekitaldi honetan parte hartu nahi duen orok baserritarrez jantzirik etorri beharko du. Bertaratutakoak hotzari aurre egiteko abesten ibiliko dira eta, gainera, giro onean.

Gogoan izan Txaramuntotik irtengo dela Santa Ageda eskea, arratsaldeko 19:00etan.

"Angularen ehorzketa"

Inauteriei agur esateko, Zumarte Musika Eskolak "Angularen Ehorzketa" antolatu du.

Datorren otsailaren 8an, arratsaldeko 19:00etan, txistu eta talde instrumentalak Zumartetik irten eta frontoi bidea hartuko du. Lutoz jantzita eta tristuraz beteta egon arren, angula guztiz erre arte musika izango da nagusi.



Otsailak 5, larunbata Inauteri Jaia

GOIZEAN, HAURRAK NAGUSI

11:00etan frontoian. Umeentzako jokoak eta tailerrak, sorpresak... Oharra: mozorrotuta agertu behar da.

ARRATSALDEAN, KALEJIRA

18:30ean koadriren elkartzea eta

kalejiraren hasiera, herriko trikitilariak girotua. 21:00etan, afaria sagardotegian. Ondoren, parranda mundiala.

Antolatzailea: NOAUA!.

Babeslea: Usurbilgo Udala.

LATXA
Kutxa denda

Janari prekozinatua
Kongelatuak
Bertako produktuak

Zabala 2, 48011 Tel. 666 301 803

ANDONI PINTURAK

Fabrika eta
barnelantetan Espezializatua

C/Etxeberri, 8
(kale-3ar)
Usurbil

Tel.: 943 361 318
Móvil: 605 702 517

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Zaborra gutxitzeko azken kanpainarekin pozik azaldu da San Markos Mankomunitatea

San Markos Mankomunitateak *Sortu zabor gutxiago* kanpaina abiarazi zuen 2004ko azaroaren azkeneko astean. Mankomunitateak prentsa-ohar bidez jakinarazi duenez, "partaidetzari dagokionez, hasieran zeuden aurreikuspenak erabat gainditu dira".

Hiritarrak kontzientziatu eta sentibilizatu asmoz, hainbat ekimen bideratu ditu San Markos Mankomunitateak. Tartean, hizpide dugun *Sortu zabor gutxiago* izenekoak. Era honetan garatu zen kanpaina:

- Postontzietan 112.000 informazio-liburuxka banatu ziren. Hala, Mankomunitateko etxebizitza gehienetara iritsi zen. Liburuxka horietan hondakinak murrizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko aukeren berri ematen zen.

- Kontsumo arduratsuari eta hondakinei buruzko tailerrak garatu ziren herriz herri. Gainera, tailer horiek San

Markoseko Mankomunitateko elkar-teei eta bigarren hezkuntzako ikas-teei ere eskaini zitzaizkien. Usurbilen, Udarregi Ikastolak jaso zuen lehen tailerra, abenduaren 16an hain zuzen. Hamar lagun bildu ziren tailerlean. Duela gutxi, Helduen Heziketa Eskolan (EPA delakoan), 25 lagunengana egin zen kontsumo arduratsuari buruzko tailerra.

- Informazio-puntu ibiltaria. Etxebizitzetako olio erabiliak nahiz hondakin arriskutsuak jasotzen dituen kamioiarekin batera iritsi zen gure artera informazio-puntu ibiltaria. puntu horretan, kontsumo arduratsurako tailerren berri ematen zen eta, era berean, hondakinei buruzko zalantzak argitzen ziren. Trukean, NOAUA!n iragarri genuen bezala, erosketak egiteko poltsa tolesgarria oparitzen zen.

Publizitatea ekiditeko ekimena

Postontzietara iristen zaigun publizitatea mugatu asmoz, San Markos



KONTSUMO ARDURATSUA SUSTATZEKO TAILERRAK ANTOLATU DITU SAN MARKOS MANKOMUNITATEAK.

Mankomunitateak beste ekimen bat abiarazi du. Mankomunitateak pegatiak argitaratu ditu eta eskatzaile guztiei doan bidaltzeko prest azaldu da. Mankomunitateko bizilagunen komunitateetako lehendakari guztiei 25.000 informazio-eskutitz bidali dizkie eta, antza denez, geroz eta hiritar gehiagok azaldu du publizitate hori guztia geldiarazteko interesa.

Bidasoatik datozen kantu-olerkiak

Sara eta Berako laukoteak, Edu Zelaieta poetaren "Mugaldekoak" poema liburuan oinarriturik, mugaz bi aldeko komunikazioa uztartu nahi du, hesia gaindi daitekeela ohartarazteko. Folk-pop eta country musika oinarritzat hartuta, ironia eta umorea tartekatzen dituzte olerkiekin batera. Emanaldia Udarregi Ikastolan egingo da, otsailaren 11n, ostirala, gaueko 22:30ean. Antolatzailea: Nafartarrak Kultur Taldea.



SAGARRONDOTIK, MARTXOAN

Iaz, otsaila amaieran ospatu izen Sagarrondotik jaia. Aurten, ordea, martxoaren lehen asteburuan ospatuko da. Sagardoa eta musika-ekitaldiak izango dira protagonista nagusiak. Baina iaz bezalaxe, aurten ere herri arteko herri-kirol saioak antolatuko dira.

MIKEL

IZ GI E

ELEKT RIT MTE

0 11 11 7

R le

el 11 - 11 111

H n k n Uz n n, s l z

USU ILG H TZ KLINIK

FE N N E FZ-M SS NENNINGE
NT NI E N L UIZ E

K ! N us , 2 I.C

Tlf 3 37 7

2 17

USU IL

PATRI

JATEXEA

- Egurteroko menuak

- Plater kobinatutak

Ogiturtekoak

Tel: 943 36 27 25

Kale nagusia, 14

Igoera fasean da erregional mailako futbol taldea

Jokalari bat eta entrenatzailea salbu, taldeko gainontzeko kideak usurbildarrak dira. Usurbil FT taldeko kide den Josu Aranberrik azaldu digunez, “azken urteetan kanpoan jokatzen aritu diren jokalari batzuk itzuli dira”. Taldea fin aritu da ligaxkan eta, horri esker, orain igoera txartela lortzeko zorian dira.

Xabier Orbegozo EHU-UPV talde-tik, Imanol Mujika Zarautz talde-tik, Unai Lataillade Ibarra areto futbol talde-tik eta Eneko Harreguy Oriotik. Ibon Bordak eta Haritz Zubiaurrek, berriz, futbola utzia zuten Usurbilgo taldea bigarren erregional mailara jaitsi zenetik. Hauek ere, aurtengo denboraldian itzuli dira taldera. Gainontzekoak, Igor Guadix, Etxaniz anaiak, Jokin Rezola, Aitor Otamendi, Javi Recio edota Jon Ugartemendia iazko denboralditik jarraitzen dute. Taldeak maila ona erakutsi du eta horri esker, ilusioz dira Usurbil FTko zaleak.

Haranen sendo aritu dira

Ligaxkan, hiru lehenengo postuetan sartzea zen helburua. Igoera fasea jokatu ahal izateko, lehen hiru postuetan sailkatu behar zuten. Eta baita lortu ere.



USURBILDIK KANPO ARI ZIREN HAINBAT JOKALARI ITZULI DIRA AURTENGO DENBORALDIAN.

Hasieran kanpoko partidetan emaitza onik lortu ez bazuten ere, bigarren itzulian ez zuten partidarik galdu. Orain arte, Haranen jokaturako neurketa guztiak irabazi dituzte, bat izan ezik.

Igoerako lehen partida irabazi

Ligaxkan erakutsi duten maila onari heldu nahi diote igoera fasean.

Igoerako lehen partidatan, txukun aritu ziren. Haranen jokatu zen eta Usurbil FTkoek Trintxerpe taldea gailendu zuten 4-0 emaitzarekin.

Datozen neurketak hauek dituzue: otsailaren 13an, Danenaren aurka Zizurkilen. Otsailaren 20an, Haranen, Irungo Mariñoren aurka. Animo muti-lak!



JUBENILAK, KOPAN

Jubenilen bigarren mailako taldea Kopako Txapelketa jokatzen ari da egunotan. Otsailaren 13an, Haranen arituko dira Donostiako San Patricio taldearen aurka.



EMAKUMEZKOEN KOPA

Jubenilena bezalaxe, emakumezkoen taldea ere Kopa eskuratzeko lehian murgilduta dago. Otsailaren 13an, Hondarribiaren aurka jokatu dute Haranen.



Elikadurari buruzko jardunaldiak Haur Eskolan

Usurbilgo Haur Eskolak, Eko Nekazaritza elkartarekin elkar-lanean, elikaduraren inguruko jardunaldi batzuk antolatu ditu. Helburu nagusiak: elikadura osasuntsu eta orekatu bat zein garrantzitsu den ohartaraztea, ze elikagai kontsumitu daitezkeen jakinaz, zein ohitura diren komenigarriak...

Hizlarien agenda-arazoak direla medio, jardunaldien datetan azken orduko aldatetak eman daitezke. Hala ere, hitzaldi guztiak irekiak izango dira eta Haur Eskolako aretoan burutuko dira, 18:00etan hasita. Haur Eskolako kideek parte hartzeko gonbite irekia egin dute.

Otsailak 9, asteazkena: Juan Gondra, EHUKo Medikuntza eta Odontologiako fakultateko irakaslea. "Ohitura osasuntsuak haurtzaroan eta nerabezaroan" izeneko hitzaldia eskainiko du.

Martxoak 3, osteguna: Blanca Garcia, alergologa. Nafarroako Osasun Zerbitzuan lanean dihardu eta zenbait elikagai gizakiaren gorpuztean sor dezaketen erreakzioez hitz egingo du. Dietetikan adituak, Monika Romes, Amaia Ripalda.

Apirilak 7, osteguna: Malen Moya, medikuntza naturalean eta nutrizio energetikoan aditua. Jesus Calvillo, Fraisoroko irakaslea eta produkzio ekologikoan aditua.

Guraso Eskola prestatzen

Haur Eskolak, Ongizate Zerbitzuaren laguntzaz, Guraso Eskola delakoa abian jarriko du datozen asteetan. Eskola, 0-3 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei dago zuzendua eta egunerokotasunean sor daitezkeen zalantzak argitzeko aukera izango da. Guraso Eskola honen funtsa dinamikoa eta funtzionala izatea da. Otsailaren 16an egingo da lehen saioa, beraz, ahalik eta azkarren izena ematea komeni da.

Norbaitek informazio gehiago nahiko balu edota izena ematera animatuko balitz, Haur Eskolara dei dezake: 943 37 40 61. Hurrengo alean, Eskolaren inguruko informazio zabalagoa emango dugu.

Aian barrena

Urtarrilaren 30ean, goizeko 9:00etan joan ginen kotxez Aiako Urdeneta auzoraino, bertatik oinez abiatu ginen eguraldi oskarbi batekin baina 1-2 graduko tenperatura hotzarekin. Aste guztian elur dezente bota zuen eta bidean ur-putzuetan jela zegoen, lur lokaztua berriz, gor-gorra, ibiltzeko aproposa.

Eguerdi aldera, Altzolara iritsi ginen eta bertako parkean atsedean hartu genuen. Bertako elizaren horma aprobeztatuz eginda dagoen frontoian, pelotan ibiltzeko aukera izan genuen. Ondoren, berriro Urdenetara beste bide batetik bueltatu eta bertan salda beroa hartu eta gero, etxera etorri ginen goiz atsegin bat igarota.



IKASTOLAKO MENDI-TALDEKOAK, URTARRILAREN 30EAN EGIN ZUTEN IRTEERAN. 20 HELDU ETA 18 GAZTETXO BILDU ZIREN.

HUTSUNEAK BETE

USO TX_R_A ERR_ZU

N_R_ JO_TEN Z_RA ZU

E_SK_L H_RR_KO M_NDI G_ZT_AK

EL_RR_Z B_TE_K D_T_ZU

GA_R GA_ER_KO Z_RE OST_T_A

NE_RE ETX_AN B_D_ZU



NOAUA!ko LEHIAKETA!!



EUSKADIKO SOINUAK 2004
2 musika cd

FREEXKUE
umorezko liburuxka

ARGIAko
2005eko egutegia

Lehiaketako galdera hau asmatzen baduzue sari zoragarri hau irabaz dezakezue!
EZETZ ASMATU!!!

Urtarrilaren 12an Zubietako Garraio Zentroko kamioientzako eta garraiolarien autoentzako aparkalekua inaguratu zen. Ba al dakizu guztira zenbat aparkaleku egin dituzten?

- 1) 307
- 2) 308
- 3) 309

Erantzunak bidaltzeko azken eguna **OTSAILAK 11**
Noaua! hamaboskaria, Bordaberri 3 Eguzkitzaldea, 20170 Usurbil (Gipuzkoa), Noaua! Kultur Elkarteko buzoian edo e-posta: erredakzioa@noaua.com

197. lehiaketako erantzunak:
Pasatzen abenduaren 28an Oreretako Galliziarbordako kiroldegian Gabon Abesti Sanketa Probintziaren 58. ediziona jokatu zen. Ba al dakizu 1 laurren mailan nor nagusitu zen?
ZUMARTE-ORERETA ABESBATZA

Ez dago irabazlerik.
Noaua!ko kamiseta, Noaua!ko 2004ko ale guztiak enkuadernatuta, Noaua!ko 2005eko egutegia, telefono deiak hartzeko ohar takoa eta beste baterako utzi beharko ditugu.



NOAUA! aldizkarirako komertziala kontratatzeko lan deialdi irekia

FUNTZIOAK

Aldizkariko eta web guneko komertziala Publizitatea kudeatu, diseinatu eta fakturatu.

Maketazio-diseinu lanak

Aldizkarirako zein elkarterako beharrezko diren maketazio zein diseinu lanak egin.

Argazkien tratamendua

Web orrialderako zein aldizkarirako argazkiak atera eta moldatu.

Dokumentazio lana

Argazkien artxiboa osatu.

Kazetari-laguntzailea

Publi-erreportajeak idatzi, albisteak osatu.

BESTELAKOAK

- Erredakzio Batzordean partehartu.
- Elkartearen dinamikan lagundu.

PROFILA

- Dokumentazioan, diseinuan edo kazetaritzan ikasitakoa eta aritutakoa.
- EGA edo baliokidea den agiria izatea.
- Gida baimena edukitzea.
- Teknologia berrietan trebatua izatea.
- Antzeko lanetan esperientzia.
- Usurbildarrek lehentasuna izango dute.

ZER ESKAINTZEN DA

Lau orduko lan-saioa, gizarte segurantzarekin. Sei hilabeteko lan kontratua, beste sei hilabetez luzatzeko aukerarekin.

Interesatuak curriculum-a bidali NOAUA!ko egoitzara, otsailaren 10a baino lehen.

NOAUA! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefona: 943 36 03 21
E-mail: elkartea@noaua.com

I l t s r t z

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

EUSKAL OKELA



LAGUNTZAILEA

h k k l , 4
T H 43 3 57 42

L K T
U T Z E
I T Z U

F I T K
Z K I K
I K T U K
K N A E L T U K

Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojandegia - Gozategia

L A B E - G O X O

Eusko Tren-en tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52/		10.21/	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22/		11.47/
11.51	12.05	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21/		20.48/	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07/		22.32/
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero
* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

Eguneko goardiako farmaziak

Otsailak 4, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 5, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 6, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 7, astelehena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 8, asteartea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 9, asteazkena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 10, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 11, ostirala
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Otsailak 12, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 13, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 14, astelehena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 15, asteartea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 16, asteazkena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 17, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 18, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 19, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 20, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

GAUEKO GOARDIAKO FARMAZIAK
Urte osoan gaueko goardiako farmazia guztiak
Hernanin egingo dira. Maria Jose Chula,
Kardabenez Kalea 48, Hernani (943 55 17 93).

2005eko egutegi osoa noaua.com helbidean

Eusko Tren-en autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05		08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05		09.30
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40		11.05	11.25		09.30	09.35	10.00
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05		10.30
11.40		12.05	12.25	09.45**	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25**			10.30	10.35	11.00
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05		11.30
12.40		13.05	13.25	10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55 #	12.45	13.05		13.30
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05		14.30
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05		16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05		17.30
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05	17.15	17.40
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05		18.30
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05		19.30
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.20	20.30			19.30	19.35	20.00
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.45	20.05		20.30
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.25	21.35	21.55	20.45	21.05	21.15	21.40
22.15	22.35	22.45	23.05	21.15	21.35	21.40	22.00
22.00	22.25	22.35	22.55	21.45	22.05	22.15	22.40
22.30	22.55	23.05	23.25	23.15	23.35		00.00
00.00		00.25	00.45	01.15	01.35		02.00
02.00		02.25	02.45	03.15	03.35		04.00
04.00		04.25	04.45	05.15	05.35		06.00
06.00		06.25	06.45				

**Aiaraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiarra
*Aiatic dator / Asteburutan
■ Soilik / Larunbat
■ larunbata gauze / lanegunetan

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)
Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)
Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren NOAUA!

Otsaila						
As.	Ar.	Az.	Os.	Ost.	La.	Ig.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28						

Hurrengo alca ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak.... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Agerialde) 36 38 95
- Oiardo kiroldedia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdia..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkartea..... 37 17 51
- Arrate Egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76

Oharrak !

Txerrimunik ordainetan !

ETXEBIZITZA

- Estudio bat edo apartamendu bat alokatuko nuke. Tf: 677 082 305.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364 469.
- Alokairuan konpartitzeko pisua edo gela hartu nahi dut. 647 97 38 44 (Lourdes).
- Pisu bat alokatuko nuke. Premiazkoa da. 661267503.
- Usurbil edo inguruetan pisua errentan hartuko genuke. Tf: 645722874.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Baserriko babarrunak saltzen dira. Kiloa 10 euro. 600901150.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxeetan) 240eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943458284.
- Kotxe bat salgai daukagu 600 eurotan. Interesatuak edozein ordutan deitu 635729637 telefonora.
- Aparkalekuak dauzkat salgai prezio oso onean Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3 zbk. Interesatuak deitu 607905859 (Imanol).
- Garaje itxi bat saltzen da Munalurra kalean 15.025 eurotan (2.500.000 pta). Interesatuak deitu: 650938489.
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 617 707 024 (Jon).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zaintzeko: 619 844 556.

- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskilerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. Interesatuak deitu 690 784 113 telefono zenbakira.

Lan-eskaintzak

- Usurbilen taberna bat traspasatzen da. 620 259 672.
- Pertsona bat behar da 6 urteko haur bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko (plantxa, jana). Asteleheneretik ostiralera 16:30tik 19:30ra. 686932720.


BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Ekonomika sukalde bat saltzen da (labea ere badu). 6 urte ditu, ondo zaindua. Prezioa negoziatuko da. 617242660 / 943361751 (Nerea).
- Bideokamara bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodera barne. Gutxi erabilia berria dago. 943376902 - 665749615 gauzez.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. 943 55 18 32.
- Poltsa bat galdu dut herrian. Topatu baduzu deitu 637 046 389 telefonora.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615755762.
- Astean zehar eski-begirale izateko jendea behar du Ikastolen Elkartek. 943444702.
- Vespa Iris 200 motorra salgai. SS-Al matrikula. Salneurria 600 euro. 656721158.

JAIOTZAK

- Sare Garcia Molina 2005eko urtarrilaren 9an.
- Oier Zubigaray Portu 2005eko urtarrilaren 26an.

HERIOTZAK

- Antonio Mugika Irastorza 2005eko urtarrilaren 8an. 82 urte. Kalezar.
- Justa Mayoza Pagola 2005eko urtarrilaren 21ean, 82 urte zituela. Aginaga. 
- Maria Concepcion Garcia Fernandez 2005eko urtarrilaren 24an.
- Jose Holgado Pache 2005eko urtarrilaren 28an.

Informazio iturria: Usurbilgo Bake Espaitegia

Zorionak Ianire!

Otsailaren 8an hiru urte beteko dituzulako, muxu asko etxeko guztien partez!



Zorionak bikote!
Fermin Apezteak 43 urte egingo ditu otsailaren 8an eta Intza Apezteak, berriz, 3 urte

otsailaren 11an. Famili guztiaren partez zorionak eta muxu handi bana.

Urte askotarako Inaxi!

Datorren otsailaren 14an irribarre honekin egun polita pasa dezazula opa dizugu. Txanpainarekin txintxin egitea ez ahaztu, eh? Muxu asko zure familiaren partetik.



**IGELTSE ITZ
t
INTU**

943 36 22 55
2 1 58 21 3



Urteina

I r k - I r l n r k

L r s r l k - K r k

San Esteban

Tlf.: 943 36 22 55

LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETEGIA
Luntapak kalea, 16 behe (Artzabal) 943 26 09 80



**TXIRIBOGA
TABERNA**

ntx k, k t k
t l r k n n t u k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98



**txirriStra
TABERNA**

- Plater konbinatuak
- Ogitarteak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13

Telf: 943 36 04 66

Agenda !

Otsailak 4, ostirala

- Afoña, Apunta, Despervicio.
22:00etan, Txokoaldeko gaztetxean.

Otsailak 5, astelehena

- Inauteri Jaia. (Ikus 15. orrialdea).

Otsailak 8, asteartea

- 19:00etatik aurrera, "Angularen ehorz-
keta" (Ikus 15. orrialdea).

Santa Ageda eskea

Datorren ostiralean, otsailak 4, Txaramuntotik Santa Ageda eskea irtengo da arratsaldeko 19:00etan. Bertso Eskolak antolaturiko ekitaldi honetan parte hartu nahi duen orok baserritarrez jantzirik etorri beharko du. Bertaratutakoak hotzari aurre egiteko abesten ibiliko dira eta, gainera, giro onean.

KzGunea

IKASTAROAK

NAGUSI WEB (20 ordu)

1. Otsailak 21-25, arratsaldez, 16:00-18:00. (Euskaraz).

AZTERKETAK

1. IT Txartela. Otsailak 28 astelehena, goizez, 11:00-13:00.

MINTEGIAK

1. "Sarean Lagundu", martxoak 2 asteazkena, goizez, 11:00-13:00. (Euskaraz).

2. "Interneten Bilatu", martxoak 4 ostirala, goizez, 11:00-13:00. (Gaztelaniaz).

Oharra: otsailaren 14tik 18ra arte, 17:30etik 19:30era, Lanbide Eskolakoentzat bakarrik egongo da irekita KzGunea.

Musikaren txokoa !



PiLTren lan berria, "Game over"

Talde mungiarrek garapen nabarmena izan du hastapenetik hona. Metal doinuak pop melodiez bustitzen dituzte baita beste musika estiloen eraginekin, psikodelia esate baterako nortasun handiko taldea osatuz. Giroak eta melodia dira indarrarekin batera euren identitatearen giltza. Mungiarren bostgarren lana da Game Over.



Aldaketa nabarmena dakar lan berriak. Izan ere, diskoaren prestaketa lanak hasi eta berehala Aitor Abiok taldea utzi zuenetik, hirukotean bilakatu baita PiLT. Taldearen soinua birdefinitu egin dute kantu zuzen eta freskoagoak sortuz, rockaren esentzira joaz.

Zaletu zein ezezagunak harritu eta asetuko dituen diskoa.

Egin kontu !

Zumarte Musika Eskolaren 20. urteurrena prestatzeko deialdia

Zumarte Musika Eskolak hogeigarren urteurrena ospatuko du aurten. Hori dela eta, ekainaren 25erako ekitaldi berezi bat antolatu nahian dabilta Zumarteko kideak. Labur-labur, hau izango litzateke egitaraua: eguerdiz, txistularien kalejira egingo litzateke. Ondoren, bazkaria eta, gauzez, musika jaialdia Kiroldegian.

Ikuskizun honetan, Zumartetik pasa diren ikasle eta irakasle guztiak (edo ahal diren guztiak) elkartu nahi dituzte. Ikasle eta irakasle izandako guztiak bildu asmoz, deialdi zabala egin nahi du Musika Eskolak. Parte hartu nahi duenak, orritxo batean



bere datuak jarri (izen-abizena, helbidea, telefonoa, jotzen zuen instrumentua, ze ahotsetan abesten zuen) eta Zumarteko buzoian utzi dezala. Bestela, telefonoz deitu, astearte, ostegun eta ostiraletan, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara (telefonoz, 943 371 594 zenbakian).


SOLOZABAL AUTOESKOLA



- Klase teoriko zein praktikokoak, norberak nahi dituenean
- Klase teorikoak ikusentzunezko abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariek gurruiatzeko nuzio arteko agentzia zihurta agiria lortzeko ikastaroak
- Garraio arriskutsuen ikastaroak
- Gidatzeko karnet guztiak

Kale Nagusia Ielf.: 943 376 936 Usurbil 20170






usk r z r ,

Euskalk Kutxin usk r z r m U z r st z r z r tze.
Gur In t k m u .

EGIN TXOTX! SAGARDOTEGI GARAIAN

Fain duzu aurtengo sagardoa. Txotx!




SAIZAR
Sagardotegia

Kale-zahar Auzoa, 39

USURBIL
GIPUZKOA

Tel. 943 362 228

WWW.sidrassaizar.com



Txotxetik irten zera kristal fiñ garbira, saltatu dezu illun betikan argira; atoz ederra, atoz, gauzkatzu begira, eragiteko baso zaudenari jira.

Ramon Artola. "Sagardoaren grazia eta beste bertso asko"



Urtarrilaren 14 tik irekita!

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobila: 670 02 77 31



SAGARDOTEGIA



**ASTIAZARAN
SAGARDOTEGIA
IRUIN**

Betidanik hemen, denon etxetik gertu.

Urtarrilaren 7 an irekiko deguk

Telf: 943 36 17 09



low Astiazaran